

berriak

Ziri

JUAN JOSE LUCASGaztela eta Leongo
lehendakaria

«Trebiñoko auzian prest gaude aurrerantzean elkar ulertzeko, eta haserrea, norgehiagoka eta exijentzia alde batera uzteko»

EL MUNDO

CARMEN ERRONafarroako Unibertsitateko
Historia irakaslea

«Ezin da esan azken mende erdiko Nafarroa bake sozialaren edo inobilismoaren paradigma izan denik»

DIARIO DE NAVARRA

FATA MAIGAMaliko kazetaria eta
emakumeen eskubideen
aldezlea

«Klitori ablaziorik jasan ez duten apurretakoa naiz. Malin %6 emakume baino ez dira libratzen»

LA VANGUARDIA

JESUS GARAIForondako aireportuko
zuzendaria

«Gaur egun, Foronda inoiz baino jende gutxiago erabiltzen ari da»

EL PAIS

hemeroteka

ARGIAVICTOR AIERDI
(Elkarriko koordinatzailea)
1998ko irailak 16Quebec:
Subiranotasuna
tragediarik gabe

Quebec-ek Kanada barruan gizarte ezberdin bat osatzen du, ezberdintasunaren konzientziarekin eta subiranotasunaren aldeko korrante sozial eta politiko garrantzitsu batekin. Auto-determinazio eskubidea bi aldiz gauzatu du, 1980 eta 1995 urteetan. Eskubide hau konstituzioan jasoa izan ez arren. De facto, ekintzen bidetik. Eta gainera, guztiek onartu dituzte emaitzak. Kanadako gobernu federalak barne. Izan ere, Quebecoko gobernuak herri kontsultarako lege bat du, eta honen arabera, garrantzitsua deritzon guztia galde diezairoke herriari, Kanadako estatuarekin izan behar dituen harremanak barne.

Aurreikus daitekeen hirugarren saio baten aurrean (azke-

nengoan ezetzak puntu bat baino gutxiagotik irabazi zuen) Gobernuak Korte Gorenera jo du (hemengo Auzitegi Konstituzionalari dagokiona) Quebec Kanadatik banatzeko duen eskubidea zehazteko. Korte Gorenaren Adierazpenak aurrerapausu bat suposatzen du, mundu garatuko estatu batean lurralde baten subiranotasunari buruzko gatazka politikoa bide demokratiko hutsetatik nola eraldatu esaten baitigu.

Kanadako Korte Gorenak, oinarrian, Quebec Kanadatik banatu daitekeela dio -gehiengoak hala nahi badu- paktuaren bidetik. Begi bistako izan daiteke, baina hainbeste urtetako tradizio demokratikoa duen gizarte batean, nazio bat estatu batetik modu demokratikoan nola bereizten den argitzea esan nahi du. Gauzak inoiz baino argiago geratu dira. Hemendik aurrera, Quebecoko eta Kanadako gizarteak badakite zeri egin behar dioten aurre. Alderdi politikoei beraien eskaintza eta konpromezu elektoralak lotu ditzazke, eta hautesleak bozkatu hitza bete dadin. Gehiengoak erabaki dezala.

Gure kasuan egoera honetatik argi-urteetara gaude. Diktadura batetik duela gutxi atera garela, urte askotako enfrontamendu biolentoaren ondorio diren

irainek sortutako inertiagatik eta oztopo ezkorrengatik, edo Konstituzio espainiarrean arazo nazionalak ikuitzeko orduan irrazionaltasuna eta errezelok nagusi direlako; Kontua da, hemen nazioaren eztabaida tragediaren eremuan mugitzen dela batez ere, eztabaida politikoa arrazionalaren eremuan baino gehiago.

Quebecoko subiranotasun prozesuaren interesa, mundu garatuko estatu nazio-anitzdun batean subiranotasunerako bide ez biolento bat eraikitzean

datza. Irlandak gatazka politikoa biolento bat gatazka politikoa ez biolento batean nola bilakatu erakutsi digun bezala, Quebec hondamendirik eta presio biolentorik gabe subiranotasuna nola eskuratu erakusten digu. Euskal Herria ezagutzen duten quebecarrek interesaz gain, bi kezka adierazten dituzte: lurraldetasun subjektuaren zehaztasun eza eta enfrontamendu biolentoa. Beraiek gutxienez, ez dituzten arazoak, eta Euskal Herriak gainditu beharko litzuzkeenak.



zuzendaritari

OHARRA: Iritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 15 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANen zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izanez gero, zuzendaritzak bere esku du horretarako eskubidea. Erdaraz iristen diren gutunak ez dira argitaratuko. Gutunak faxez, posta arruntez edo posta elektronikoz bidal daitezke (helbide elektronikoa: egunkaria@jalgi.com).

Gora Lizarra!!!

Agur Lizar, o lizar, gure arbasoen, gure basoetan dagoen zurhaitz maitagarria. Betidanik zure babesa eskeini diguzularik, herriak hori ikusi ohi du zugaran. Zu zira beste gauzen artean, tximistak jotzen ez duen zurhaitza, eta guk jakin badakigu zure magalean gaudela tximistaren erasoaz babesturik gaituzula. Esker aunitz, esker onez eta hau adierazi nahian, herriak, bat eginaz, Ekain Jaiean sokadantza sortu zuen, lizarrari dantza, gurtza eginaz.

Ordutik hona, euri asko egin du eta tximista ugari izan da, baina, Lizarraren magalean beti. Nahiz eta dantzariak herri-ikusle-goari begira dantzatu dioten eta herria so egon den. Aurten, lehen aldiz, ene begiek hau ikusi dute: batetik, Oreretak Ekain Jaiean, lizarra ipini barik, dantzariak ikuslego herriari dantzatu diotela, lizarrari ez behintzat. Gauza berri zein kezkarria. Bertetik, larunbat honetan, Nafarroako Lizarran; euskaldunon batasunerako eta gatazkarekiko konponbiderako urrats berria adierazten duen hitzarmena burutu da. Lizarrari begira, Oreretatik Nafarroa so, Xiberotik izarretara behatuz, gauza berri zein itzaropentsua iruditu zait. Lizarraren babesean Euskal Herria eraikiz sokadantza dantzatu dugu berriz ere, lehen ere dantzatu genuelako eta bihar ere dantzatuko dugulako. Eskerrik

asko lizar, gora gu ta gutarrak. Gora Lizarra, agur beti!

● Joseba Andoni Leizeaga

ORERETA

Nortzuk dira benetako euskeraren etsaiak?

Euskera idazten ari naiz, nahiz eta jakin, idazten ari naizena gutxi irakurriko dutela. Baina gustatzen zait eta gustora egingo dut.

Irakaslea naiz. Guri, irakasleoi politikoei, eta beraiekin batera jende askok, eskatzen digute gure antzinakoek sortu zuten arazo konpontzea. Haien artean bitartean askok gaztelaniaz hitz egiten jarraitzen dute. Are gehiago norbaitek, arrokeriaz beterik, ausartzen da esatera ez dakiela eta ez duela inoiz ikasiko: *Loro viejo no aprende*. Horrelako gauzak esaten dira txantxetan, haiek euskerarekin txantxak egin ahal dituztelako, guk ez. Normaltzat ikusi dugu, beraientzat euskera txantxa hutsa delako, bestela, euskera maite izango balute ez ausartuko lirakeke guri eskatzea gure klaseak euskera ematea. Azalduko dut.

Euskera idazten ari naiz eta nahiko ondo egiten dudala uste dut baina, gauza bat da idaztea eta oso bestelako gauza da hitz egitea. Hitz egin bitartean ez dugu astirik hitzak edota egiturak pentsatzeko. Dena dela, elkarrizketa arrunta denean zer edo zer esatea erreza da. Gure lana, ordea, ez da elkarrizketa arrunta, bai zera! Gai konplexuak, askotan ulertzeko edota azaltzeko zailak, jakinarazi behar dizkiegu gaztetxoek. Ikasleen artean oso pertsona ezberdinak daude. Gure lana da guztiei gauzak ondo jakinaraztea. Horretarako dauzkagun errekurto guztiak erabili behar ditugu, guztiak! Errekurtso hauek, hezkuntza arduradu-

nek ondo dakitenez, gaztelaniaz ditugu, gure ezagutza guztiak gaztelaniaz ikasi genuen eta gaztelaniaz pentsatzen dugulako.

Bide batez, eta azalpenak ematen ditugun bitartean, gu geu gara ikasleentzako lengoia kulto eredu. Gure klaseak euskeraz eginez gero lortuko genukeena izango litzateke:

A) Alde batetik ikasleek askoz txarrago ulertzea eta gutxiago jakitea.

B) Bestetik euskerari tratu txarra ematea.

Horrengatik esaten dugu gure euskerak ez duela balio klaseak emateko, baizik eta, noizean behin, etxeko edota eguneroko elkarrizketa mantentzeko. Horrela egiten ari gara batzuek, euskera zaintzeko hoberena dela pentsatzen dugulako. Klaseak euskeraz emateko denbora luzea falta da oraindik. Etorkisunetan eta pizkanaka pizkanaka gauzak aldatuko dira. Une honetan bizia eta sendoa izateko euskerak behar duena da: Pazientzia, astia eta adimenik, euskeraren etsaiak deitzen digutenei falta zaiena, hain zuzen ere. Haiek dira euskeraren etsaiak, gure antzinakoen hizkuntza arma politikoa bihurtu dutelako, eta batez ere, euskeraren izenean hil dutenak, horiek bai direla benetako euskeraren etsaiak. Ondorioz, gure euskera baserri eta familien berba gosoak izateko umeentzako beharra eta irakasleentzako ikara izatera pasa da. Baina, haiei euskeraz importatzen zaien gauza bakarra da beraien interesa politikoa lortzea. Bidean irakasleok, ikasleek eta euskerak berak osasuna galtzen badugu, haiei bost axola.

Bitartean euskera maite dutela eta gu euskeraren etsaiak garela esaten duten askok gaztelaniaz hitz egiten jarraitzen dute eta, fanatikoei, oraindik gutxienez, ez diete esan euskeraren etsaiak direla. Zergatik?

● Gloria De La Fuente

BILBO